

**2018.urteko diru-laguntzen deialdia**

**Eremua: GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA GIZA-  
ESKUBIDEAK**

**Diru-laguntzen lerroa: 2- GARAPENERAKO NAZIOARTEKO  
LANKIDETZA, URTEBETEKO PROGRAMAK: HELBURU  
NAGUSIA INBERTSIOA DUTENAK**

## **1. artikulua. Esparrua eta xedea**

Berdintasun, Lankidetzaren, Bizikidetzaren eta Jaietako Sailak, garapenerako lankidetzaren eta giza eskubideen eremuaren barruan, "Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Urtebeteko programak: helburu nagusia inbertsioa dutenak" izeneko diru-laguntzak emango ditu. Diru-laguntza horiek 2019ko abenduaren 31 baino lehen amaitu behar duten garapenerako lankidetzarako proiektuak eta programak finantzatzeko emango dira. Programa horiek irabazi asmorik gabeko elkarteek gauzatuko dituzte. Inbertsio-proiektutzat jotzen dira hezkuntza-instalazioak, ur hornidurarako eta saneamendurako sistemak, osasun-zentroak, ekipamenduak zein azpiegiturak eraikitzea edota eraberritzea zein ondasun inbertariagarriak erostea xede dutenak.

Gehienezko diru-kopurua, programako: 70.000 €

## **2. artikulua. Aplikatzekoa den araudia**

Eskaerak ebazteko prozedurak honako hauetan araututakoa beteko du:

- Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO),
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta azkenik, lege hori garatzen duen araudia.

Halaber, honako lege hauetan diru-laguntzen gainean ezarritakoa ere aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa, eta gainerako araudi osagarriak;
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, zehazki I. titulua.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, zehazki II. titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeetarako buruzkoa.

## **3. artikulua. Erakunde onuradunak**

3.1 Diru-laguntza jasoko dute baldintza hauek betetzen dituzten erakundeak:

- a) Egoitza nagusia edo ordezkaritza finkoa edukitzea Bilbon (dokumentu-bidez egiaztatuta) diru-laguntzaren eskaria egin baino urte bi lehenagotik gutxienez. Era berean, jendeari arreta emateko zerbitzuaren (baldin badu) ordutegia zehaztuko da, eta egoitza etxebizitza partikularrarekin batera dagoen adieraziko da.
- b) Euren helburuetan garapenerako nazioarteko lankidetzaren agertzea, 1. eta 2. ildoetako diru-laguntzak eskatzeko.
- c) Deialdi honetako jardueretako ekintzak sustatzea Bilbon.

Udalerrian presentzia aktiboa dagoela irizten da erakundearen esparrutik kanpoko jarduera ireki eta publiko hauetako batzuk eginak izango dituzte azken bi urteotan:

- Sentsibilizazio eta elkartasunaren arloko kanpainak.

- Prestakuntzako edo/eta sentsibilizazioko jarduerak ikastetxeetan, gizarte erakundeetan, auzo-elkarteetan, eta abarretan.
  - Deialdi honekin lotutako erakusketak.
  - Arlo honekin lotutako ikerketa-jarduerak edo/eta testuak, gida didaktikoak, artikulua, erreportajeak eta azterlanak argitaratzea.
  - Bilboko Lankidetzarako Udal Kontseiluko kide, Berdintasunerako Bilboko Emakumeen Kontseiluko kide edo/eta Bilboko Udalaren Immigrazio Gaietarako Kontseiluko kide izatea eta bere jardueretan parte hartzea.
- d) Erakundeen partzuergoek (edo nortasun juridikorik ez daukaten taldeek) ere diru-laguntzak eska ditzakete. Taldearen ordezkari modura erakunde bat izendatu beharko dute, taldeari, onuradun modura, dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiarekin. Erakunde ordezkari horrek aurreko paragrafoetan jasotako baldintzak bete beharko ditu eta partzuergoaren edo taldearen ordezkari izango du zabaltzen den administrazio espedientean. Partzuergoa edo taldea ez deuseztatzen konpromisoa egin beharko dute diru-laguntzaren ondorioetarako, ez bada preskripzioaren epea amaitu. Eskabidean jasoko dira kide den erakunde bakoitzak onartutako betearazpen konpromisoak.
- Partzuergoko kide guztiek 3.3 artikuluko baldintzak bete beharko dituzte.
- e) Diru-laguntza eskatzen duen erakundea izango da hura betetzearen eta Bilboko Udalaren aurrean behar bezala justifikatzearen arduraduna, lekuko kideek edo atzerriko alderdiek gauzatu arren osorik edo zati batean.
  - f) Eskabidea egin duen elkarteak 2016ko edo aurreko deialdietan jasotako diru-laguntzak justifikatuta eduki behar ditu deialdi hau ebatzen den unean. Urte biko diru-laguntzak badira, udalaren 2016ko edo aurreko urteetako aurrekontuetakoak egongo dira justifikatuta. Eskudun organoak gaitzetsiko ditu baldintza hau betetzen ez duten eskabideak.
  - g) Eskabidea egin duen elkarteak eskaerak egiteko epe barruan aurkeztu beharko ditu agiriak. Behin epea amaituta aurkeztutako agiriak, ez dira kontuan hartuko proiektua baloratzeko. Hori Bilboko Udalak beren beregi eskatutako agiriak izan ezik.

**3.2.** Erakunde eskatzaileek, eskariak aurkezteko epea amaitzen denean, Bilboko Herritarren Partaidetzako Erakunde Udal Erregistroan erregistratuta egon behar dute eta erregistroko datuak eguneratuta eduki behar dituzte (Erregistroa Herritarrentzako Arreta, Partaidetza eta Barrutien Sailean dago: Venezuela plaza 2, 4. solairua). (2018ko otsailaren 12a)

**3.3.** Erakunde eskatzaileak egunean eduki behar dituzte betekizun fiskalak, Gizarte Segurantzakoak eta Bilboko Udalarekin dituzten zerga-betekizunak; hori, eskaria aurkeztu dutenean eta prozesuak irauten duen bitartean (diru-laguntza esleitzea, betekizuna onartzea eta ordainketa egitea).

## **4. artikulua. Aurrekontu-kredituak**

**4.1.** Deitzen diren diru-laguntzak Bilboko Udalak **2018ko** ekitaldirako onartutako aurrekontu orokorraren aurrekontu-kodearen kontura (**PEP: 2018/00126**) finantzaren

dira.

Deialdi honetarako zenbatekoa **(370.500 €)** da.

**4.2.** Deialdia onartzen denetik diru-laguntza ematen den arte egoera ekonomikoak okerrera egiten badu, zenbateko horiek gutxitu daitezke, defizitik ez izate aldera. Izan ere, betekizun hori Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan dago ezarria eta administrazio publikoek bete egin behar dute; lege horri jarraikiz, beraz, horrelakoetan aurrekontuak doitu egin behar dira.

## **5. artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedura**

**5.1.** Diruz laguntzeko kontzeptuari **aplikatzeko erregimena norgehiagoka izan daiteke:**

- Norghegiagokan, diru-laguntzak emateko aurkeztutako eskariak alderatzen dira, lehentasun-ordena ezartze aldera, 9. artikuluan aipaturiko irizpideen arabera. Gero, diru-laguntza balorazio handiena lortu dutenei ematen zaie, betiere deialdian zehaztutako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

**5.2.** 2.arloan onartutako diru-laguntzen zenbateko osoa benetan erabiltzen den kopurua baino txikiagoa bada, geratzen dena 1.arloko zenbatekoari gehituko zaio.

Era berean, 1 eta 2 lerroetan onartutako diru-laguntzen guztirako zenbatekoa diru-laguntzetarako dagoen kopurua baino txikiagoa bada, geratzen dena 3.arloko zenbatekoari gehituko zaio.

**5.3.** Behin gutxieneko atalera helduta (60 puntu), emateko diru-laguntzaren zenbatekoa doitu egingo da, programa bakoitzak lortutako puntuazioaren araberako portzentaje bat aplikatuz, taula honi jarraikiz:

<b>Programari emandako puntuak</b>	<b>Emateko diru-laguntzaren %</b>
70 puntu baino gehiago	Eskatutako zenbatekoaren % 100
60-70 puntu	Eskatutako zenbatekoaren % 80

## **6. artikulua. Diruz laguntzeko kontzeptuak**

**6.1** Diru-Laguntza jasoko dute baldintza hauek betetzen dituzten programak:

- a) Bilboko Udalaren Garapenerako Lankidetzako Gidaplanean lehentasunezko hartutako herrialdeetan edo guneetan egitea. Saharaz azpiko Afrikak lehentasuna dauka, helburu bikoitza lortu nahi delako: batetik, kontinente horretan lankidetzaz sustatzea eta, bestetik, proiektuak baloratzeko orduan kontuan hartu ohi diren irizpideetako batzuk betetzeko zailtasuna konpentsatzea. Horregatik, Saharaz azpiko Afrikan gauzatzekoak diren proiektuek, lankidetzarako sekzio guztietan, baremazio handiagoa izango dute, hau da, baremazio-taularen arabera lortzen den puntuazioa bider 1,05 egingo da.

- b) Funtsezko eta oinarrizko gizarte-premiak hobetzeko eragin praktikoa eta zuzena duten ekintza zehatzetan oinarrituta egotea.
- c) Proposatutako ekintzaren jasotzaileen artean ez dadila egon diskriminaziorik arraza, erlijio, sexu, joera sexual edota adinagatik, eta emakumeen rol hirukoitza aitortu dadila (etxeko kontuen kudeaketa, ekoizpenekoa eta erkidegokoa). Generoko behar estrategikoak asebate ditzala eta emakumeak gizartean eta politikan duten lekua hobetzeko izan dadila.
- d) Gizarte zibilaren laguntza eta partaidetzazko garapena, giza eskubideak eta demokrazia bultzatzeko izan daitezela.
- e) Bideragarriak izan daitezela Udalaren finantzazioa amaitutakoan.
- f) Lekuko bazkide baten edo atzerriko alderdi baten bidez egitea, biztanleria onuradunaren partaidetzaz. Lekuko bazkidea irabazi-asmorik gabeko erakundea edo erakunde publikoa izango da, nortasun juridikoa duena eratu eta dagokion erregistroan formalki inskribatua. Lankidetzaren eratzeko dokumentua (lankidetzaren fitxa) erantsiko da eta, bertan, erakunde eskatzailearen eta tokiko alderdiaren konpromiso eta ardurak jasota etorriko dira. Lekuko bazkideek edo atzerriko alderdiek gauzatzen badute diru-laguntza, osorik edo zati batean, ez da azpikontrataziorik joko 38/2003 Legearen 29. artikulua ondo onartariko.
- g) Indarrean dagoen aurrekontu-ekitaldian edo transferentziako diru-sarrerara egiten denetik hurrengo 2 hilabeteetan hasia.
- h) Proiektuak 2019ko abenduaren 31 baino lehenago amaitzea.  
Justifikatuta badago, epe hori luza daiteke, baina horretarako Bilboko Udalak beren beregi eta alde aurretik eman beharko du baimena.
- i) Proiekturako komunikaziorako erabiltzen den edozein materialek Bilboko Udalaren logotipoa edukitzea, Berdintasun, Lankidetzaren eta Herritarren Gaietarako Sailak horretarako emandako jarraibideekin bat etorri. Erakunde onuradunak material hori gainbegiratzea erraztuko dio Bilboko Udalari. Baldintza hau ez betetzeak emandako diru-laguntza udalari itzultzeko prozedura hasia ekar dezake.
- j) Deialdi honen bidez Bilboko Udalak guztira egin beharreko finantzazioa kostu osoaren zenbatekoaren % 100 izan daiteke.
- k) Bilboko Udalaren diru-laguntzak garraio-elementuetako (ibilgailuak eta horrelakoak) 15.000 eurotik gorako inbertsioak finantzatzeko balio duen proiektuak izanez gero, deialdi horren osteko deialdietan proiektuaren jarraipena aurkezteko edo, bestela, proiektuaren jarraipena aurkeztu ezean horretarako nahiko argudiatuta dagoen justifikazioa aurkezteko eskaera egin duen entitatearen konpromisoa jasota egongo da proiektuan.
  - l) Genero-ikuspegiaren integrazioa, hau da, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin lotutako ebazpenak betetzea; emakume eta gizonezkoen egoera, baldintza, jomuga eta beharrezkoak era berdinean hartzea, eta politika eta ekintza guztietan, beraien plangintza, egikaritzea eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak txertatzea.
- m) Lekuko bazkide edo atzerriko alderdiak ez eduzkitzea diru-laguntza izendunerako hitzarmenik Udalaren garapenerako lankidetzaren aurrekontuan.

- n) Bilboko Udalarekin, Lankidetzarako Udal Kontseiluarekin edo beste erakunderen batekin lankidetzan jardutea herritarrei proiektuaren garapenari buruzko informazioa ematean. Garapenerako Sentsibilizazio eta Hezkuntzaren arloan antola daitezkeen jardueretan ere parte hartu behar dute.

## 6.2 Garapenerako nazioarteko lankidetzako programetako diruz lagundu daitezkeen gastuak

a) Diruz laguntzeko gastuak joko dira diruz lagunduriko jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat egiten duten dagokion deialdia araupetzen duten oinarriek ezarritako epe barruan egiten diren gastu guztiak. Inolaz ere, diruz laguntzeko gastuak eskuratzeko kostua ezingo da merkatuko balioaren goragokoa izan.

b) Diru-laguntzak araupetzen dituzten oinarriek aurkakoa adierazten ez badu, egindako gastutzat joko da hura justifikatzeko ezarritako epea amaitu baino lehen eraginkortasunez ordaindu dena.

c) Diru-laguntzak ezingo du zuzeneko eta zeharkako gastuak barne hartu. Zeharkako kostuen muga: Proiektuaren guztiaren gastu zuzenen % 7. Zeharkako gastutzat jotzen dira erakunde eskatzailearen ordezkariaren edo Bilboko egoitzaren funtzionamenduaren berezkoa eta esku-hartzea gauzatzeko oinarri gisa erabiltzen diren gastuak, edo dagokionean, lankidetzaren hitzarmenean zehazten diren gastuak.

d) Zuzeneko gastutzat joko dira esku-hartzea gauzatzeari lotutako gastu guztiak. Hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

d.a) Lurraldeko esku-hartzea identifikatuz eratorritakoak, baldin eta diru laguntzen dagokion deialdia amaitu baino aurreko bost hilabetetan egin bada eta deialdiaren aurrekontu urte berebean;

d.b) Kanpo ebaluazioak eta kontu-ikuskapenak, baldin eta Administrazioak eskatu baditu, edo diru-laguntza eskatu duenak eginiko proposamen honen bidez onartu badira;

d.c) Lurraldeak eta higiezinak, erositakoak zein alokatutakoak;

d.d) Higiezin edota azpiegituren eraikuntza edota erreforma (esku lana, obra zuzendaritza, lizentziak, eraikuntza materialak, etab. barne);

d.e) Esku-hartzeari lotutako lurraldeei eta higiezin eraikuntzari lepora dakiekeen gastuetan, jabetza araubidea eta titularitatea zehaztu beharko da, hura egiaztatzen duen dokumentazio nahikoa entregatuz;

d.f) Ekipoak, materialak eta hornikuntzak. Diruz lagunduriko jardueraren lurraldeak eta eraikinak ez bezalako hibilgetu elementuak erostea ekipamendutzat hartuko da: makinak, altzariak, ekipo informatikoak, garraio elementuak eta beste ekipamendua. Kontzeptu horretan ekipoak bidaltzetik eratorritako gastuak barne hartu ahal izango dira;

d.g) Langileak. Arau horren ondorioetarako honakoa hartuko da kontuan:

- Atzerrian dauden langileak: eskaria egiten duen erakundeko langileak dira eta diruz lagundutako esku-hartzea egiten den herrialdean ematen dute zerbitzua. Langile horien funtzioak eta zereginak zuzenean daude lotuta haiekin, Kooperantei buruzko Estatutua eratzen duen apirilaren 28ko 519/2006 Errege Dekretuarekin (maiatzaren 13ko BOE) bat etorrira.

- Bertako langileak: erakunde eskatzailearen edo bertako bere bazkideen langileak, talde onuradunaren beste erakunde batenak. Langile horiek guztiak diru-laguntzaren xede den esku-hartzea gauzatzen den herriko lan legeen menpe izango dira eta aipaturako zerbitzuak adierazitako herrian garatuko ditu. Euren betekizunek eta betebeharekin esku-hartzearekin zuzeneko lotura izango dute.
- Egoitzako langileak: Bilboko egoitzan zerbitzuak eskaintzen dituen Estatutako legeen menpeko erakunde eskatzailearen langileak, garatzen dituzten zerbitzuak direla eta, noizean behin edo maiz egikaritze herrialdeetara joan behar izatea alde batera utzita. Horien betekizunak eta betebeharrak egikaritzeari eta diru-laguntzaren xedeko esku-hartzearen jarraipenari egozten zaizkie.

Nolanahi ere, erabat edo partzialki egotziko da, betekizunaren arabera diruz lagunduriko esku-hartzeari egiaztatzearen arabera.

Diruz lagundu daitezkeen langileen gastuek barne hartu ahal izango dituzte indarrean dauden legeetan derrigorrezkoak direnak.

Atzerrian dauden langileei eta egoitzan daudenei, gehienez ere, proiektuaren aurrekontuaren % 20 inputatuko zaie.

d.h) Gaikuntzak, mintegiak, diagnostikoak, txostenak, argitarapenak, gestio kontrola edo esku-hartzearen formulazioan adierazitako bestelako premiak asetzeko eskatutako zerbitzu teknikoak eta profesionalak;

d.i) Kreditu osagai bat duten esku-hartzeak egonez gero, funts birakariak ezingo ditu gairitu deialdian ezarritako mugak, edo finantzaturako gastu zuzenen %30. Funts birakaria gestionatzen duen erakundeak kanpo finantza- kontabilitate auditoretza aurkeztu beharko du 30.000 eurotik gorako fondoetarako, edo kopuru baxuagorako ere bai, emakidan hala zehazten bada.

d.j) Esparruko mantentzea (elektrizitatea, ura, komunikabideak, mantentzea, segurtasuna, ...).

d.k) Bidaiak, ostatua eta dietak. Esku-hartzea egikaritzeko atzerriratutako langileen mugikortasunerako eta lokalerako gastuak eta esku-hartzea gauzatzeko proiektuaren jasotzaile diren pertsonen beharrezko gastuak sartzen dira. Ez da onartuko egoitzako langileen bidaiako, ostatuko gasturik eta dietarik, behar bezala justifikatutako kasu berezietan izan ezik.

d.l) Esku-hartzea egikaritzeko beharrezko diren finantza-gastuak, lege edo finantza aholkularitzakoak, notariokoak eta erregistrokoak. Kontzeptu honetan sartzen dira egikaritze herrialdeetako fondoetako banku transferentzietatik eratorritako gastuak.

d.m) Proiektuaren formulazioan aurreikusitako gastuak, esku-hartzearekin lotutakoak eta Bilbon garapenerako heziketa ekimenekin eta gizarte sentsibilizazioarekin lotutakoak.

d.n) Ez da inolako baloraziorik onartuko. Eskaria egin duen erakundeak ekarpen balorizatuak jasota utzi nahi baditu horri buruzko informazioa erantsi dezake, baina ez dira agertuko proiektuaren aurrekontuan.

**6.3** Diruz laguntzeko moduko kontzeptu baten zenbatekoa sektore publikoko kontratazioari buruz dauden legeetan kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak<sup>1</sup> baino handiagoa bada, erakunde onuradunak, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik, hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu behar ditu, gutxienez, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik edota xede-herrialdeko ezaugarriengatik, hori betetzeko aukera ematen ez duenean salbu. Inguruabar hauetan, beharrezkoa izango da dagokion Lankidetzarako Bulego Teknikoak edo xede-herrialdeko espainiar enbaxadak igorritako txosten bat aurkeztea, salbuespen hori egiaztatzeko. Hala ezingo balitz, Europar Batasuneko edozein herrialdeetako enbaxadako onartuko litzateke.

Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan edo, egoki bada, diru-laguntzaren eskarian, aurkeztu beharko dira eta horien artean bat aukeratzeko eraginkortasuna eta ekonomiako irizpideak hartuko dira kontuan. Ez bada eskaintzarik merkeena aukeratzeko, memoria batean justifikatu beharko da beren beregi.

Esku-hartzea gauzatzen deneko herrialde edo lur-eremuri lotutako arrazoiak direla medio, Administrazioak salbuespenak egin ahala izango ditu atal honetan ezarritako betekizunei dagokienean.

**6.4** Diru laguntzei buruzko Legen Orokorraren 31.4 artikuluan agindutakoari jarraituz, Bilboko Udalak emandako diru laguntzekin eraikitzen diren higiezinak nahiz erosten diren ibilgailu edo bestelako ekipoak burututako jarduketaren helburuetara lotuta geratuko dira formalki, eta, behin helburu horiek erdietsitakoan, edo esku-hartzea gauzatzeko ezintasuna sortzen denean, eskualdatu egingo dira, eta GGKE espainiarrak, ez bertoko laguntzaileek, ez dituzte libreki erabiliko. Esku-aldatzea esku-hartzearen xede deneko herrialdeko tokiko erakundeei egingo zaie nagusiki eta egitate horren dokumentuzko isla egin beharko da. Dena delakogatik ere erakunde publikoak ezingo balute erantzukizun hau bere egin, erakunde eskatzaileak ziotutako proposamen alternatibo bat aurkeztu beharko du, eta hau Bilboko Udalak onetsi egin beharko du.

**6.5..** Balorazio-batzordeak aurkeztutako proiektuan jarduera edo gastu batzuk aldatzeko eska dezake; hori, helburuak betetzeko beharrezko iritzita. Aldaketak aurrekontuan aldaketarik balekar, entitate eskatzaileari eskabidea berriro egiteko eska dakioke.

#### **6.6. Inola ere ezingo dute diru-laguntzarik jaso:**

- a) Banku kontuen interes zordunak.
- b) Administrazio eta zigor interesak, errekarquak eta zehapenak.
- c) Auzi prozedurengatik gastuak.
- d) Egoitzan dauden langileen gastuak inagurazioetako ekitaldiak, dohaintzak, titulartasunaren transferentziak edo antzekoak direnean.

---

<sup>1</sup> Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, kontratu txikiak 50.000 eurotik beherakoak dira (BEZik gabe), baldin eta obra-kontratuak badira; eta 18.000 eurotik beherakoak, horniketara edo zerbitzu-kontratuak badira.

2018ko martxoaren 9tik aurrera; hau da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea indarrean sartzen denetik aurrera, kontratu txikiak 40.000 eurotik beherakoak izango dira (BEZik gabe), baldin eta obra-kontratuak badira; eta 15.000 eurotik beherakoak (BEZik gabe), horniketara edo zerbitzu-kontratuak badira.

6.7. Orokorrean, zergak diru-laguntza jaso dezaketen gastua dira, erakunde onuradunak diruz ordaintzen baditu.

## **7. artikulua. Eskabideak**

---

### **7.1. Aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da eta 2018ko otsailaren 12an amaituko da.

### **7.2. Informazioa eta dokumentazioa**

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia hemen egongo da eskuragarri:

- Bilboko Udalaren web orrian ([www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus)).
- Bilboko Udalaren gardentasun-atarian ([www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio](http://www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio)).
- Diru-laguntzen Estatuko Datu Basean ([www.infosubvenciones.es](http://www.infosubvenciones.es)).
- Bilboko Udalaren Herritarren Informazio Bulegoan eta barrutietako udal bulegoetan, ohiko ordutegietan.

### **7.3. Bideratzea**

Eskariak Udalaren web-orriaren bitartez edo udal erregistroan egin daitezke.

- Eskaria **Udalaren web-orria** medio bideratuz gero, aplikazioak eskatzen dituen pauso guztiak eman behar dira eta eskatzen dituen datu guztiak jarri behar dira.
- Eskaria **udal erregistroan** aurkeztuz gero, diru-laguntzaren arlo eta ildo bakoitzeko eskari-orri bat bete behar da, Bilboko Udalak zehaztutako ereduaren arabera.

Orri horretan erakunde eskatzaileak diru-laguntza ildo horretan zer programa aurkeztu nahi dituen zehaztuko du, arloari dagozkion diruz laguntzeko moduko kontzeptuen bitartez.

Eskari-orria aurkeztu daiteke Hiritarrentzako Arreta Bulegoan, barrutietako udal bulegoetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan legez ezarritako gainerako lekuetan.

**7.4.** Erakundearen legezko ordezkaritza edo legezko ahalordea duen pertsonak sinatuko du eskabidea, aditzera emanaz adierazitako datu guztiak egiazkoak direla eta erakunde eskatzaileak onuraduna izateko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikulua

ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela, eta eskaeran adierazitako datuak egiazkoak direla.

**7.5.** Diru-laguntza eskariak ezin dute gainditu, inola ere, programa bati emateko zenbateko handiena. Gehienezko zenbateko hori diruz laguntzeko kontzeptu bakoitzean zehazten da.

**7.6.** Halaber, eskari guztietan kontuan hartu behar da diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez lortzen den finantziarioak, guztira, ezin duela gainditu aurkeztutako programaren kostua.

**7.7.** Bilboko Udalak, aurkeztutako eskariak hobeto baloratze aldera, egoki irizitako argibide guztiak eska diezazkieke erakunde eskatzaileei.

**7.8.** Programa bakoitza diru-laguntzen udal-lerro baterako bakarrik aurkeztu beharko da.

**7.9.** Erakunde eskari-egile bakoitzak Garapenerako Lankidetzeta eta Giza Eskubideen esparruko 1, 2, 3 eta 4 lerro guztietarako programa bakarra aurkeztu ahal izango du.

## **8. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

---

**8.1.** Eskaria **Udalaren web-orriaren** bitartez bideratuz gero, bi dokumentu hauek aurkeztu behar dira, PDF formatuan:

- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, "Garapenerako Nazioarteko Lankidetzeta proiektuei laguntzeko eskabidearen inprimakia (2018. urtea)" deritzon ereduaren arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

**8.2.** Eskaria **udal erregistroan** aurkezten bada, **dokumentazio** hau gehitu behar zaio:

- Programa bakoitzaren laburpen-fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Programa bakoitzaren aurrekontuaren fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da "Garapenerako Nazioarteko Lankidetzeta proiektuei laguntzeko eskabidearen inprimakia (2018. urtea)" deritzon ereduaren arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

**8.3.** Eskaera sinatzen duenak espresuki baimenduko dio Bilboko Udalarari egiazta dezala betebeharrak fiskalen eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren ordainketa egunean daukan. Dena dela, baimena espresuki ukatu ahal izango du, baina horretarako aurkeztu beharko ditu, administrazio eskudunak indarrean dagoen urtean emanik, zerga-betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dauzkala edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria.

**8.4.** Bilboko Udalaren diru-laguntzarik edo beste edozein kontzepturengatik ordainketarik jaso ez duten eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan ez dauden erakundeek "hartzekodunen fitxa" aurkeztu behar dute, behar bezala beteta.

**8.5.** Eskaria ez bada behar bezala formalizatu edo aipaturiko datu edo dokumenturen bat falta bada, erakunde eskatzaileari **10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan** eskatuko zaio eta azalduko zaio akatsak ez zuzenduz gero eskaria artxibatu egingo dela, besterik gabe.

## **9. artikulua. Balorazio-irizpideak**

---

Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauek aplikatuz baloratuko dira:

### **9.1. Proiektuaren identifikazio, kalitate teknikoa eta koherentzia (58 puntu):**

- a) Aurrekariei eta proiektua burutuko den testuinguruari buruzko informazioa, bereziki garrantzia emanez genero-berdintasunari eta giza eskubideak betetzeari. (gehienez 7 puntu)
- b) Agertutako helburuen, proposatutako jardueren, lortu nahi diren emaitzen eta proiektua abiatzeko baliabideen azalpena eta euren arteko koherentzia. (gehienez 5 puntu)
- c) Emaitzak neurtuko dituzten adierazleen erabilpena eta haiek egiaztatzeko sistemena. (gehienez 2 puntu)
- d) Proiektuan erabiliko den zerbitzu eta baliabideetan emakume eta gizonezkoen benetako partaidetzari buruzko jarraipen eta ebaluazio datuak jasotzeko genero-adierazleak erabiltzea. (gehienez 1 puntu)
- e) Bideragarritasun teknikoa eta finantzazkoa, eta aurrekontua deialdirako egokitzea. (gehienez 6 puntu)
- f) Zuzenean edo zeharka onuradun izango diren biztanleei buruzko informazio zehatza, sexuka eta biztanleria hori aukeratzeko irizpideen arabera bananduta. (gehienez 2 puntu)
- g) Proiektuak ekintzen bidez, batez ere prestakuntza arlokoen bidez, gizartean aldaketak eragiteko duen gaitasuna. (gehienez 3 puntu)
- h) Teknologia berriak proiektuan erabiltzea. (gehienez puntu 2)
- i) Emakumeek proiektuaren ziklo osoan parte hartzeko dituzten zailtasunak (ordutegia, lekua, informazioa...) gainditzeko neurriak hartzea. (gehienez puntu 2)
- j) Bilboko elkarte eta erakundeen eta txirotutako herrialdeko komunitate edo erakundeen edo arteko harremana sustatzea. Lehentasuna emango zaie elkarte feministei edota emakumeen taldeei eta giza eskubideen defentsan eta sustapenean beren beregi lan egiten dutenei. (gehienez 1 puntu)
- k) Bidezko Merkataritzaren eta Kontsumo Arduratsuaren sustapenerako estrategiak indartzeko osagarri produktiboak sartzea (gehienez puntu 2).
- l) Material grafikoa eta kokapen-mapak eranstea. (gehienez 2 puntu)

- m) Jarraipenerako egingo diren jardueren deskripzioa egitea, alde batetik erakunde eskatzaileak eta, bestetik, tokiko alderdiak, bai proiektuak dirauen bitartean, bai amaitutakoan. (gehienez 2 puntu)
- n) Proiektua eskatzailearen erakundearen, beste alderdiaren edota tokiko administrazioen ekintza-estrategia batean sartuta egotea; estrategia hori biztanleen eskubideak betetzera orientatuta egonda. (gehienez 2 puntu)
- o) Proiektua Bilboko Udalaren Garapenerako Lankidetzaren III.Plan Zuzentzailearen lehentasun sektorialekin bat etortzea (gehienez 9 puntu)
- p) Generoaren arabera inaktuaren ebaluazioa (gehienez 3 puntu). Hori baloratzeko ondorengo alderdiak hartuko dira kontuan:
- Analisisian, diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan erabilitako metodologia, fase guztietan genero ikuspegia txertatu dela kontuan hartuta.
  - Jarraipen eta ebaluaziorako adierazle zehatzak eta egiaztagarriak, bai prozesuarenak, bai eta emaitza eta helburuenak ere. Zenbatekotasunaren eta nolakotasunaren adierazleak txertatzen ahalegindu beharko da.
  - Proiektuaren estrategia orokorrarekiko koherentzia.
  - Emaitza eta helburuen bideragarritasuna eta jasangarritasuna, ikuspegi tekniko, ekonomiko eta instituzionaletik begiratuta.
- q) Bilboko Udalaren Garapenerako Lankidetzaren III.Plan Zuzentzailearen ordenarako printzipioak eta zehar lerroen balorazioa (gehienez 5 puntu):.
- r) Agiri guztiak behar bezala aurkeztea eskaria egiteko unean (2 puntu).

## **9.2. Eskaria egiten duten erakundeari dagokionez (14 puntu):**

- a) Erakunde eskatzailearen esperientzia eta kudeaketa gaitasuna, Bilboko Udalaren Garapenerako Lankidetzaren III.Plan Zuzentzailearen lehentasun sektorialetan batez ere. (gehienez 3 puntu)
- b) Erakundearen partzuergo batek aurkeztea proiektua. (gehienez 0,5 puntu)
- c) Bilboko Udalak lehenago finantzaturako proiektuetan erakunde eskatzaileak izandako emaitza positiboak. (gehienez puntu 1)
- d) Bulegoak edota Bilboko delegazioak proiektuaren idazketan parte hartzea. (gehienez puntu 1)
- e) Proposatutako aldean eta sektorean proiektuak egin izanaren aurrekariak. (gehienez puntu 1)
- f) Euskal erakundeak, elkarteak eta erakunde pribatuak proiektuan sarrarazteko ahalmena, batez ere, horiek berdinketa politiken sustapenean eta emakumeen eskubideen defentsan lan egiten badute. (gehienez 0,5 puntu)
- g) Jarraipena Bilboko Udalak finantzaturako ekintzetan (gehienez 3 puntu)
- h) Emakume eta gizonen presentzia orekatua (sexu bakoitzeko ordezkariak, % 40) Gobernu Batzordean edota erakundearen zuzendaritzaren baliokide den beste organoren batean. (gehienez puntu 1)
- i) Egiaztatutako prestakuntza genero gaitetan, proiektuaren arduradun den gutxienez taldekide baten aldetik. (gehienez puntu 1)

j) Erakunde eskatzailearen finantza eta teknikako gaitasuna genero ikuspegitik lan egiteko (Genero Politika/Dokumentua, genero gaietan esperientzia, genero ikuspegiak proiektuan duen plangintza, jarraipena eta ebaluazioa, plangintzarako tresnak, genero sareen edo emakume eta gizonezkoen berdintasunaren aldeko mugimenduetako partaide izatea...). (gehienez puntu 1)

k) Bilboko Lankidetzarako Udal Kontseiluko kidea izatea. (puntu 1)

### **9.3. Inguru geografikoari dagokionez (7 puntu):**

a) Indarrean dagoen Bilboko Udalaren Garapenerako Lankidetzako Plan Zuzentzailearen lehenetsitako herrialde bateko jardueraren helburua (7 puntu).

b) Indarrean dagoen Bilboko Udalaren Garapenerako Lankidetzako Plan Zuzentzailearen lehentasunezko definizioa dauka herrialde bateko jardueraren helburua (4 puntu).

### **9.4. Tokiko alderdiari dagokionez (10 puntu):**

a) Tokiko alderdiaren esperientzia eta kudeaketa gaitasuna, Bilboko Udalaren Garapenerako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailearen lehentasun sektorialetan batez ere. (gehienez 2 puntu)

b) Elkarrekin izaera feminista edo emakumeena izatea edota emakumeen politiketan, sustapenean eta giza eskubideen defentsan lan egiten duten erakunde eta elkarrekin proiektuan inplikatzeko gaitasuna. (gehienez 2 puntu)

c) Eskaria egin duen erakundearen eta tokiko alderdiaren arteko lehenengo harremanak. (gehienez puntu 1)

d) Bilboko Udalak finantzaturako proiektuetan lehenengo izandako lankidetzaharremanak. (gehienez 2 puntu)

e) Erakunde lokalen eta zuzeneko onuradunen arteko harremanak. (gehienez 2 puntu)

f) Egiaztatutako prestakuntza genero gaietan, proiektuaren arduradun den gutxienez taldekide baten aldetik. (gehienez puntu 1)

### **9.5 Erakunde lokal publikoek xede-lekuan duten partaidetzari dagokionean (6 puntu):**

a) Tokiko politika publikoetan proiektua integratzeari edota koordinatzeari buruzko informazioa. (gehienez 2 puntu)

b) Eskumena duten erakunde lokal demokratikoek edo erakunde publikoek beren beregi parte hartzea edo horiek laguntzea proiektuak aurrera eramateko. (gehienez 2 puntu)

c) Eskumena duten erakunde publikoek beren beregi laguntza ematea behin proiektua amaitutakoan. (gehienez 2 puntu)

### **9.6 Proiektuaren helburu diren biztanleei dagokienez (5 puntu):**

a) Bereziki kalteberak diren biztanleriaren sektoreen eskubideak bermatzeko edo babesteko proiektua, batez ere, indigenen, nekazaritzako inguru apaleko biztanleen, hiri-inguruetako biztanleen, baztertutako emakumeen, baztertutako umeen, gizakien salerosketak eragindako pertsonen, errefuxiatu, erbesteratu edo

itzulitakoen, minusbaliotasun funtzionala daukatenen eta abarren eskubideak.  
(gehienez 2 puntu)

- b) Proiektuaren helburu diren prestonek proiektuaren fase desberdinetan parte hartzea, emakume eta gizonezkoen partaidetza orekatua kontuan hartuta (gehienez 2 puntu)
- c) Emakumeen elkarrekin indartzea (emakume liderren prestakuntza, emakumeen autonomiari laguntzea, emakumeen hautagai-zerrendak prestatzeko laguntza, etab.) (gehienez puntu 1).

## **10. artikulua. Izapideak eta balorazioa**

---

**10.1.** Prozeduraren izapideak egiteko eskumena Berdintasun, Lankidetzaz, Bizikidetzaz eta Jaietako Saileko Lankidetzaz, Inmigrazio eta Giza Eskubideen Sekzioari atxikitako langileek izango dute.

**10.2.** Kide anitzeko organo gisa jardungo duen balorazio-batzordeko kideak hauek izango dira:

Presidentea: Berdintasun, Lankidetzaz, Bizikidetzaz eta Jaietako Saileko Zinegotzi-Ordezkaria

Idazkaria: Berdintasun, Lankidetzaz, Bizikidetzaz eta Jaietako Saileko Zuzendaria

Kideak: Sekzioko burua

Lankidetzako teknikaria

Bilboko Lankidetzako Udal Kontseiluko Batzorde Betearazlea

Garapenerako Lankidetzako Batzorde Berezia

**10.3.** Deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera eskariak ebaluatu ondoren, Balorazio Batzordeak txostena egingo du, egindako ebaluazioaren emaitza jasotzeko.

**10.4.** Instrukzio-organok, espedienta eta Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, behin betiko erabaki-proposamena egingo du.

## **11. artikulua. Berriz antolatzea**

---

Behin programa guztiak baloratuta, erakunderen bati emateko zenbatekoa ez badator bat hark eskatutakoarekin, arau hauek beteko dira, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Orokorreko 10.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz:

- A) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 edo handiagoa bada, Bilboko Udalak, ofizioz, erakundeak bere garaian aurkeztutako aurrekontua gutxituko du, proportzionalki.

Jardueraren amaieran, aldatutako azken aurrekontu hori justifikatu beharko du erakundeak.

- B) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 baino txikiagoa bada:
- a) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro edo gutxiago bada, prozedura aurreko atalean (A) zehaztutako berbera izango da.
  - b) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro baino handiagoa bada, Bilboko Udalak erakundeari jakinaraziko dio 10 eguneko epean programa berrantolatu beharko duela, aurrekontua zenbateko horren arabera egokitzeko, edo, bestela, diru-laguntzari uko egin beharko diola. Udalak, erakundearen erantzun espresua jasotzen ez badu, ulertuko du diru-laguntzari uko egitea erabaki duela.

## **12. artikulua. Ebazpena**

**12.1.** Prozedura ebaztea Gobernu Batzarrari dagokio.

**12.2.** Eskariak ebazteko eta erakunde eskatzaileak jakinaren gainean jartzeko gehieneko epea 6 hilabete da, deialdia argitaratutako egunetik kontatzen hasita. Alde horretatik, onartutako zein ukatutako diru-laguntzen berri emango da.

Sei hilabeteko epea amaitu eta ebazpenaren berririk jaso ez badute, erakundeek, administrazioaren isiltasuna dela eta, diru-laguntza eskaria atzera bota dutela uler dezakete.

**12.3.** Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren kontra erakundeek aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezakete Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar dezakete, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

## **13. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea**

**13.1.** Orokorrean, diru-laguntzak aurrez ordainduko dira, justifikatu aurretik, oso-osorik, diru-laguntzari dagozkion jarduerak gauzatzeko behar den finantzazio gisa eta inolako bermerik eskatu gabe.

**13.2.** Diru-laguntza banku bidezko transferentzia bidez ordainduko da, erakundeak Bilboko Udalaren Hartzekodunen Erregistroan duen kontu korrontean.

**13.3.** Erakunde onuradunak aurreko diru-laguntzaren bat justifikatzeko epea amaitu eta justifikatu ez badu, ez du diru-laguntza jasoko. Halaber, erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzultzea eskatu eta itzuli ez badu, ez du diru-laguntza jasoko.

## **14. artikulua. Erakunde onuradunak diru-laguntzaren inguruko publizitatea egitea**

Diru-laguntza jasotzen duten erakunde guztiek Udalaren finantzazioa jaso dutela adierazi beharko dute eta, horretarako, Bilboko Udalaren logotipoa jarri beharko dute sortzen dituzten paperezko materialetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroitzapenezko plaketan, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko

komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan. Argitalpenetan, horrez gain, edukiaren gaineko erantzukizun-klausula bat jarri beharko dute, testu honekin:

Proiektu honek Bilboko Udalaren diru-laguntza jaso du, baina erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra.

Erakundeei Bilboko Udaleko sailek emango diete Udalaren logotipoa.

Gainera, erakundeek bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabili behar dituzte diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitatea egiteko sortzen dituzte kartel, testu eta dokumentuetan. Orobat, diruz lagundutako jarduera sustatzeko adierazpen publikoak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dituzte, ordena horretan.

Erakunde onuradunek jaso dituzten diru-laguntzen publizitatea gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzen arabera egin beharko dute. Lege horretako 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspenaz baliatuz gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalak bitarteko elektronikoa erabiliko du publizitatearen inguruko zereginak betearazteko.

## **15. artikulua. Azpikontratazioa**

Erakunde onuradunek, jarduerak azpikontratatzeko, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 13. Artikuluan eta Diru-laguntzen Lege Orokorreko 29.2 artikuluan ezarritakoa bete behar dute.

## **16. artikulua. Programa aldatzea**

Programan aldaketa handiren bat egin aurretik, eskaria egin behar zaio Bilboko Udalari, erregistroa medio, eta Udalak berariaz baimendu behar du.

Aldaketa handiak egiteko eskariak arrazoitu egin behar dira, eta aurrekontuan eta kronograman zer eragin izango duten zehaztu behar da. Gobernu Batzarrak dagokion saileko ordezkariari eskuordetu dio aldaketa horiek baimentzeko zeregina.

Honako hauek hartzen dira aldaketa handitzat:

- Helburu orokor eta/edo espezifikoko aldatzea.
- Onartutako aurrekontu-partidetako zenbatekoak % 20 baino gehiago aldatzea (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin diete zeharkako kostuei eragin), programaren aurrekontu osoa gutxitu gabe.
- Tokiko bazkidea edo atzerriko alderdia aldatzea.
- Proiektuaren biztanle protagonista aldatzea.
- Proiektuaren kokagunea aldatzea.
- Jatorrizko kronograma oinarri hartuta, jardueren betearazpenean sei hilabetetik gorako eragina daukaten aldaketak.
- Hiru hilabetetik gorako luzapenak.

Jarduerak egiteko epeak gehienez ere hiru hilabete luzatu ahal izango dira alde aurretik baimenik izan barik. Hala ere, luzapen hori Bilboko Udalari jakinarazi beharko zaio

justifikaziorako hasierako epea bukatu baino lehen. Jakinarazpen horrekin, epea modu automatikoan luzatu dela ulertuko da.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea badakar, Gobernu Batzarrak onartu behar du.

Diru-laguntzaren izaeraren eta helburuen funtsean eraginik ez duten aldaketak diru-laguntzak justifikatzen direnean onar daitezke, betiere aldaketa horiek onartzeak hirugarrenei kalterik egiten ez badie.

## **17. artikulua. Uko egitea**

Behin diru-laguntzak egokituta, erakunde onuradunek diru-laguntzari uko egitea eska diezaioke Bilboko Udalari, erregistro bidez.

Eskaria jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu behar da eta dagokion saileko ordezkariak onartu ondoren izango du eragina. Erakundeak, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

## **18. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekin bateratzea**

Bilboko Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin. Betiere, diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez jasotako finantzazioak ezin du izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa.

Erakunde onuradunek Bilboko Udalari jakinarazi behar diote proiektu bererako beste diru-laguntza edo laguntza finantzario batzuk jaso dituztela, beste administrazio publiko batzuek emanda, udal ebazpenaren ondoren. Horretarako, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epea izango da, gehienez.

## **19. artikulua. Diru-laguntzak justifikatzea**

### **19.1. Justifikatzeko epea**

Erakundeek jasotako diru-laguntzak justifikatzeko hiru hilabeteko epea izango dute, programa amaitzen den egunetik kontatzen hasita, edo diru-laguntza jasotako egunetik, programa egikaritu ondoren jaso badute.

### **19.2. Justifikatu beharreko zenbatekoa**

Diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatu behar da, ez Bilboko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik, Diru-laguntzen Lege Orokorrean zehaztutako moduan.

### **19.3. Justifikatzeko sistema**

**19.3.1. Norgehiagokan,** diru-laguntza justifikatzeko, erakunde onuradunak programa bakoitzean egindako gastuaren justifikazio-kontua aurkeztu behar du, honela:

Justifikazio-kontuan honako hauek jaso behar dira:

- a) Programa gauzatzeko egindako jardueren memoria eta lortutako emaitzak. Horrek guztiak bat etorri behar du diru-laguntza eskatutakoan aurkeztutako

programarekin. Hori guztiori eskaria egitean aurkeztutako programarekin bat etorrira. Proiektuaren memoria teknikoan zehaztu egingo dira egindako ekintzak, lortutako emaitzak, lortutako helburuak eta aurkitutako arazoak, genero-ikuspegitik. Beharrezkoa bada, proiektuaren eragina aipatuko da (alderdi teknikoak, ekonomikoak, sozialak, politikoak, ekologikoak eta emakumeen eta gizonen arteko botere-erlazioari dagozkionak).

Txosten teknikoan Power Point bat sartu ahal izango da (gehienez 20 diapositibakoa) egindako proiektuaren laburpen moduan, honakoak jasota besteak beste: lorpenak, ahuleziak, alde sendoak, jasangarritasuna, burututako ekintzak etab. Proiektua egin den leku geografikoaren maoak eta argazkiak sartuko dira nahitaez. Power Point hori Bilboko Udalaren web orrian sartu ahal izango da, urteko memorietan.

- b) Justifikazio-kontuaren barne izango dira, dokumentazio originalarekin batera, egindako gastuen zerrenda zenbatua erantsiko da ordena korrelatiboan, onartutako aurrekontuan agertzen den moduan. Zerrenda ondorengo eredu bezala osatuko da: faktura edo dokumentu zenbakia, ordainketa egiten duen entitatea (erakunde eskatzailea izan daitekeelarik edo tokiko alderdia, Elkarte Fitxak ezartzen duenaren arabera), data, egiaztagiria, kontzeptua, entitate hornitzailea, zenbatekoa bertako txanponean (Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren diru laguntzen kasuan), zenbatekoa eurotan. Zerrenda horretan, agiri hauek erantsiko dira, proiektuaren zenbatekoa osatu arte: nominak, egiaztagiriak eta faktura originalak edo notarioak konpultsatutako kopiak edo subentzionarioen zenbatekoaren azkeneko erabilera egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein agiri (Nazioarteko Agentzien kasuan ezaugarri bereziekin). Diru-laguntza edo laguntza horiek justifikatzeko jatorrizko agiriak zigilatuta egongo dira eta gutxienez finantziarioaren jatorria ziurtatuko dute.

Proiektuak beste herri-administrazio batzuen diru-laguntza jaso badu, ekainaren 16ko 784/2010 Errege Dekretuaren 33. artikuluan agindutakoa aplikatuko da, herri-administrazio horiek emandako diru-kopuruari dagokionez.

Kutzako ordainagiriak erabiltzeko baimena ematen da, ekainaren 16ko 794/2010 Errege Dekretuaren 40.3 artikuluan jasotako moduan.

- c) Programa egikaritzeko aurreikusitako epean egindako gastuak egiaztatzeko jatorrizko frogagiriak, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 14.2 artikuluan ezarritako moduan. Hona hemen, zehatz-mehatz, zer frogagiri aurkeztu behar diren:

- Programa egikaritzeko zuzeneko kostu guztiak, fakturen eta froga-balio bera duten agirien bitartez justifikatuta.

Gastuak justifikatzeko frogagirik, beti, datu hauek eduki behar dituzte:

- Erakunde onuradunaren identifikazioa.
- Gastuaren helburuaren deskribapena; gastuak, betiere, programaren egikaritzearekin lotura zuzena izan behar du.

Alde horretatik, frogagirik justifikatzen duten programarenak izan behar dute, bakar-bakarrik.

Salbuespen gisa, enpresaburu edo profesional ez diren pertsona fisikoek noizean behin egiten dituzten jardueren kasuan, aurkeztu daitezke hitzartutako prestazioaren zenbatekoaren ordainagiria eta hartzailearen nortasun-agiria (NAN,

AIZ edo pasaporte). Alde horretatik, zenbatekoa 200 euro baino handiagoa bada, ordainketa hartzaillearen banku-kontuan egin izanaren egiaztagiria ere aurkeztu behar da, nahitaez.

Pertsonal-gastuak egiaztatzeke soldata-orriak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak aurkeztu behar dira.

- Zeharkako kostuei dagokienez, ez da frogagiririk aurkeztu behar, salbu berariaz eskatzen bada. Erakunde onuradunak kostu horiek diruz lagundutako jarduerari dagokion partean egotzi beharko dizkio, zentzuz, eskuarki onartutako kontularitzako printzipio eta arauen arabera, eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak diren heinean. Egotzitako zenbatekoak ezin du izan, inola ere, diruz lagundutako programaren kostu zuzenen % 7 baino handiagoa.

Justifikazioari dagokionez, zeharkako kostuen portzentajeak erakundeak diru-laguntza jasotzeko aurkeztu duen aurrekontuan adierazitako berbera izan behar du, eta behar bezala justifikatutako zuzeneko kostuen gainean aplikatuko da.

- d) Justifikazioa egiteko konturen modalitatea erabil daiteke, auditorearen txostena erantsita, baldin eta maiatzaren 17ko EHA/1434/2007 Aginduan ezarritako baldintzak betetzen badira. Txosten hau 19.3.c puntuan eskatutako agiriak aurkeztearen ordezkurke daiteke. 60.000 euroko edo hortik gorako diru-laguntzak izanez gero, modalitate hau erabiltzea gomendatzen da. Txosten hauen kostuari aurre egiteko diru-laguntza bat eman daiteke, 6.2.d.b. puntuan azaldutako baldintzak betez gero.
- e) Bilboko Udalak diruz lagundutako beste edozein programa edo proiekturen finantzazioa erabat justifikatu barik badauka eskaria egin duen erakundeak, kontzeptua edozein dela ere, ez da finantza-laguntzetarako libramenduririk egingo.
- f) 25.4. Ohiz kanpoko egoeretan, behar bezala egiaztatzen direnean, ekainaren 16ko 794/2010 Errege Dekretuaren 39. artikuluekin bat etorrita.

#### **19.4. Justifikaziorik egiten ez bada edo justifikazioa nahikoa ez bada**

Justifikazioa aurkezteko betekizuna betetzen ez bada edo justifikazioa nahikoa ez bada, erakunde onuradunak jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, dagozkien berandutze-interesak barne, Diru-laguntzen Lege Orokorreko 37.1 artikuluan ezarritako moduan.

## **20. artikulua. Diru-laguntzen publizitatea**

Urtea amaitu baino lehen, emandako eta ukatutako diru-laguntza guztiak Udalaren web-orrian argitaratuko dira.

Halaber, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean diru-laguntzen berri emango da, Diru-laguntzen Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.